

# EMAKUME INGOSKIA

## IRU EREGINAK

Ipul-esaletak diote, Iru Erregeak goi-argiz Josu'ren jaiotza jakin zuten garaietan, beste iru Erregina eder, Ergeak bezala jakintsu ta aberatz eder, Ergeak kin zutela baita goi-argiz, Belen' ko Aurtoreen jaiotza.

Egia dan edo ez... Esan dizutet: ipul-esaletak diote. Oietako batengandik dakit ba nik; eta edesten duan bezela edestuko dizutet.

Orrela ba, Sorkaldeko iru erregeak bezala, beste iru Erreginek ere izan zuten beren menpetasun, omen eta emaitzak. Jaungoikozko Aurtzoki eskeintzena juteko dela.

Erregina abetan bat, Libi' ko Maden zan; bere lurraldeetako zurak bezala beltzaran, lirain eta egokia; andi-antz, lerdena.

Erregina au, usaki eder zalea zan, eta Josu' ri eramateko, zeuzkan usaki eder-ederrenak artu zituen. Guztirako ur eta ora ol-ezak lorerik eder usain-tsun lurrikariak; ain ederrik bestek ez zituen bezelakoak, eta oietako baten balioz lurralde aundiak erosteko lain-goak.

Aundikiro agertu zale a zanez, bere lagun-inguruko, jopu, gudari, ta jaun asko artu zituen, ain egia aundiari zegokion aunditasun antz-berezis ikusi zezaten igarotzen zan tokietakoak.

Basauntz aunteko amabi abere ikus-garririk zeramatzen bere zijoan burdi eder ederra. Burdi au, kareli ilun garenaz egifikoa zan, egundoko arri baliozuz josa.

Bere sofiekoak, janzkorrikokoak ziran, pitzi antzek ur ta arroriz egalaunduko bere soin beltzaranari eder-antz oi- ez bat lenaz gain emanaz.

Besete erregina, Samarkanda' koa zan; bere lurralde ta inguruetako, ama kumerik ederrenaren ospea zuana. Alar gura zan; eta bakalduntza zabal aundi zuana; ha bere senar Thalestro erregeak lurralde askoren jabe utzi zuan, eta beraz ere asko-naikoa zanez, len zitunaz gainera zail aundiak artu zituen bere gudaletxe izugarriak bidaltu zituen tokietan. Au gatik erregina guda-zale izena zuan; eta bere jabetza aundien arrotasunez agertzen zan.

Au, bitxi eder zalla zan; eta zitun eta arkitu ta erosi zituen arri balioz, urre zillar eta garririk aberatsenez bete aubatu zan; aberatsuz guzi abek Goiko Errege-aurrari eskeintzeko.

Beronen izena Kolbis, Esnez eta larro sa-orritz egindakoa izan ba-litz bezela zuri-gorria, ille-mataza urre gorri antzekoa zuelarik.

Omen burdi urre gorrikoa zan baita, eta sei loal aundi zeramaten orrua zeriotela, bala Kolbis' en esanera beti otxan eta men gelditzen zirala. Gurditan zutik gudari jauntzia; sofian zitun urre ta arriki zoragarrien eta buruko kasku dizidizaleaz, Kolbis' ek eguzki ipitaren egiten zuan dizidizale eguzkia berak zirudien; eta ondoren ez karzen gudari ta guda-treznak zarata begitzen zuten notifikak, amez egin ba-zuten bezela txoratuta ustean zituen.

Besteak Ta-ti' zuan izena; txiki atse-gifia; azal orrika ta begi poltu lurrezak be-puru mecaz zituna. Bere espai guri gorriak arrosa gorri antza zuten, irri-par zoragarri bat zeriotela.

Au oial eder zalla-ta, onelako gajak zemazkin Josu' rentzat. Egundoko oial eder-ederrak beronen zemazkin, inoiz ikusi ez diran gajz eotzak. Illeleu zikiri ta urreariak, baita larrukirik ederrak ere. Jantziki ta apaingarriki zoragarrienak ez, Ta-ti' kezamakin oial abezaz berditzekoak; ez beren gai ta esta zizute margoaz ere.

Baita beste esku-gurdi atzurdifiekzo baten zaldiapain batzun zeramaten; eta bere sofieko urre-tisuz egindako ta luma zurizko burukoaz, inguruan zituen jopu apain eta bitxi dizidikor artean zoragarri bat zirudien.

Iru erreginak lurralde banatukoak ziran eta ez zuten elkar ezagutzen; baita beren asti-jakintzaz igerriz zuten Be-leb'a zuan bear zutena ta bideari eman da, Arabi eremuko luroan irurak bat egingo zirala elkarrekin jarraitzeko.

Onela bakatza bere bakalderirik abia tu zan izar dizidikor bat gidari zute-la.

Elkartu bear zuten toki ortara lenen Ta-ti' erregina eldu zan. Igaro zituen on-dar-muñatzen artetik arako irurra bat-zirik, eta eremu erdiko lurroan arkitu zan. Egun-sentia zan; eta eguzkia do-i-doi argitzen zituen bertako zuaizño ta palmondo lerdanak, alze-leun goxoa-k zebizkila soñu antzeko zarataxo atse-gin batez. Ta-ti' bere jarraitzaileaz beretako aintzira gelgarr baten ondoan gelditu zan beste erreginari etorri zal.

Bere jopuak oiñal eta buruko ederre-egontikoa gertu zitoten ta amez bat bezin poltu bertan gelditu zan. Une artan an alboa aintzira egalean zegoen sasi-larrosa batetik jeiki zan pitxiliko-te arre, ilun ega urdin-gorri bat, ta Ta-ti' ren buru gaitetik ega egin ondo-ren, onen burukoaren luma zurial ikuz-tuz aienatu zan goizeko ilunantzean.

Pitxilikoteak ikutu leun au egin zio-nean Xeres' ko erregina onek, alako zerbait dardariko bero antzeko bat na-

baitu zuan beregan bafia, ontan gelditu zan.

Urrengo, Libi' ko erregina Madeh ei-du zan; beraz eldu bafio len zekarzen jopu ta gudarien turutu soñuak beronen etorrera adierazten zutela.

Jopuak bota zituzten oiñal artean jexi zan hurrera erregina au ere, ta ofia lurrean jarri zuan ordukoxe, lengo pitxilikote arrean bigietan ikutu zion. Onek ere besteak bezela arako berota-sun zerbait nabaitu zuan beregan bafia bereala juan zitzaionez ezeren jaramo-nik egin gabe urreratu zan Xeres' koa gafia ta besarkatu ziran.

Bereala zan baita, Kolbis Samarka-da' ko erregina ere aurrez entzuten zi-rala bere burdiz zekarten leolen orru tabere guda-tresnen zaratak. Ordurako eguzkia bere izpiak palmondo artetik luroan sartu zituen ta Kolbis' en gudari jantziko arri-bitxiak dizidira itxumengari bat egiten zuten. Lengo pitxiliko-teak bafia, besteak bezin laister bere bular-etzalki urrezkoan ikutu zion, eta bat-baten biotza sartutako saskakai ba-ten arako zerbait nabaitu zuan; bafia bereala igaro zitzion eta besteak agur-tzera jexi zan.

Iruak on eta jakintsuak ziran eta ez zuten alperrikako itz eta jardunik. Bafia elkarri maite agurra egin ondoren, ikustera zijoazen Josu Aurra' zaz ba-koizak zuan irizila azaltzen aisi ziran; eta orrela jardun ziran, batek maitagar-ri bestean jakintsu ta besteak aintza-garri Aurtuxa azaltzen zutela.

Beren jopu ta morrolik egin zieten janari ederre bezalko, abetakoan beren aurrean egin zituzten dantza zora-garriak ikusten aldia eman, eta iluna-barrean Kolbis' ek besteak, bata bes-teak Belen' go aurrerentzat zemazkin erregaluen erakusketak bata besteari egi tea eskatuz.

Besteak ere au ontzat artu zitoten, eta orrela atera zituzten zeramazkiten aini-beste ta ainieste gauz eta bitxi eder.

Kolbis' urre-bitxi ta arriak, Ta-ti' ren oiaki zoragarriak eta Madeh' en usaki atsegingarriak au guzian nazu-tuan agertu ziran, batzuen dizidira ta bestien lurrikak zabaltzen zirala. Iru erreginak bafia, ez ziran beste emaku-maen antzera ikusitako gustiaren nalez oi diranak, eta ez zuten bata bestearen gauzaen nalkeririk. Gañera bakoitzak guztik zuan, eta ez zan etzuten gauzarik.

Ala ere Ta-ti' kezamakin Madeh' ek zuan ora-usaitu batek gelditu zuan nerrezko ontzixu baten zuan ora ba-ten begira.

Kolbis' i, Ta-ti' oialetan zeraman arri gorri dizidikorrez eotutako oial eder ba-teri begira gelditu zan. Eta Madeh, Kol-bis' ek zeraman arri orrika zoragarri bateri begira.

Ontan atsedean artzera oatu ziran egundoko bigunki ederreren beren mor-ro eta jopuak gertu zizkloten etzan tokietan, usai-goza bitxi ta oial eder artean. Guztiz ilundu zan eta ixilita-sun ososa zegoen.

Kolbis, an zegoen bere tokian loak ar-tu ezinda, alde batera ta bestera bira ta bira burutirik Ta-ti' ren oiaki eder uratzaz oidozten.

Berak bai zituen ura bezin ederrak as-ko bafia ezin zuan burutirik kendu; uraxe ta uraxe zertorian beti buru-rra.

Ta-ti' baita, Madeh' en usal-oreas oidozten. Bai zituen berak beste usaki ederrak asko bafia uraxe ezin zuan burutirik kendu. Ta bira ta bira ezin loak artu.

Bestetik Madeh Kolbis' ek zeraman arri-orrika dizidikorra buruan zuala, au ere loak artu ezinda. Bira ta bira ta beti buruan arri-orrika. Bai zituen al-dian beste batzuk ederragoak bafia Kol-bis' ena ezin aitzu.

Onatan pitxilikote arre illoan iruren gañetik ega egin zuan. Ez zuten ikusi ilun zegolako, bafia beronen ikutuak ematen loten bero-antza berengan na-baitu zuten. Ezin, ezin lo artu.

Ta-ti' txikia urduri bafio urdirago ze-gon. Guzia ixil ta guziak lo, bera bere oiaki ader artean bakarrik emal. Jel-ko ote zan? Guziak lo... Ta-ti' zutin-du zan etzetokirik eta estalpetik ar be-gitu zuan. Gabaren ilunpean, iru erre-ginok utzi zituzten gauz eder pilloa zerbait ere nabarmentzen zan, baita be-raben zaindari zegoan jopuak loak ar-tuta zeudeula zerbait ere igartze zan bafia besterik ez.

Ezin zan egon. Ixilka-ixilka itzal ar-tean aurreratu zan erregalu pilla ze-gon tokira, ilunpean nun zeuden na-barmentzen zan pilla ura billatu nar-rik. Etzan zan ta luzatu zuan eskua. Madeh' en usalkia artzeko; ta une artan bere eskua beste bi eskurekin ar-kitu zan: Kolbis' ena, Ta-ti' ren oiaki lapurtzera juanda, ta Madeh' enerkua baita Kolbis' en arriorikxa arrapatze-ra. Bat-baten, pitxilikote arrea iruren erdian sortu zan, eta alako gar gorri bat beregadikei jeiki zan pitxilikoteak deabru antza artzen zuala. Gar gorri-aren argitasunera, iru erreginak elkar ikusi zuten, eta beren pekatuaren lotzaz lida gelditu ziran.

Orra nun ainbeste gauza Josu Aurra' rentzat, ainbeste ta ainbeste aberasta-sun kupida gabe ta biotz guziz ema-teko zeramazkiten iru erreginak, ifo-ren gauz txiki baten inbriz pekatu egin eta Josu' gana eldu gabe gelditu ziran.

“Urte berri, zarrak berri, gaztien amurragarri”. Ez al da beintzat gaz-tien amurragarri izango, onako lengo argakiz au. Amalau edo amabost bal ditu, ta Urte berrian zarrak berritzearen dakargu.

Andutz mendiak Urreitzeako zelaiak aintziran egifia dago. Ara orduko nes-katza abek aintzira erdiko ugartetxoan euzko-ikurrifia zabalduta nun dauden. Atzetik, aintziriaz beste aldean bi baserriak neska begira. “Ze emakuma di-ra abek eta ze ikurrin!” Orduan ez zan ba Andutz'en euzko abertzaletanuk ezagutzen. Gaur ordea, besterik da ikurrin ori berentzat artua dute, Andutz inguru guzian.

Emakume abek ez dute berriz ori zabaltzera kaletik gora jua bearrik, bertakoak jasotzeko lain egin dira-ta. Bafia baita ere ezin izango dira emen-dik aurrera; ta lengo lan ederrari begira, beren lanaren emaitz ederrari be-gira pozik egon bitex.

Irripar dagien neska-kokorra, lekaike egifik, umetxual zerura bide; irakasten degu. Txapelaz dagoena zerura jua zan. Beste gelenak guraso egif-ik ogeita sei umetxu guzian artean bal dituzte, ta euskeldun ta abertzale astizen dituztelarik.

Guraso ez diran banakak ere ez dira aberriaz aitzu ta bakoitzak al duan eraz lan-eta lan ari dira Euzkadi aldez

Ea ba, Urte Berrian, argazkiko Emakuma aben saesi dezuten emakume ga-zeak. Egin lan eta lan ta euzko-ikurrifia zein dan, ez dakienari erakutsi.

**Lan eta lan beti**

Au idasten detan garaian, erri-rik geienetako Emakumak txiro aldez lan eta lan egin ondoren, jantziaz josi ta banandu aur-jalo berentzat janzki-otarratuak antolatuta ta Gabon-apariak eman ondoren Erregetan umetxual jostaliuak emateko bear diran lanak egiten ari dira.

Nekatuta. Ez da gutxiagotako. Lar abek egin eta ibilli bear aundiak dituz-te; ta batzutan beren atsekabeak ere bai; on-eginak, serritan oi dituzten atse-kabeak, deabruak jartzen ditun eragoz-pen ta gertakari mingarriak. Min oi du ba gokaizto onek, kistar zintzoak goimaitasunez egiten ditun on guziaz eta bai daki batzutan erdian sartzen bafia, baita onegifiaz Jaungoikoaren sa-ri, ondorengo poza oi du-ta, pozetan ere bai gure Emakumak, beren eginez ederreren ondore gogoangarri begira.

Bafia ez gaitzela nekeari eman; 'an asko abek zerbait ere nekatu egiten gaituzte, ta aldi betean beste ezertan ekiteko gogorik gabe bezela ustean gaitu.

Ala ere al dagokigu gelditze ori? Ez det ust.

Guda bitartean atsedean artzerik ezta bear-bear dana besterik; eta gu gudan arkitzen gera; gure Aberri arerioaz gu-dan. Ekin eta ekin jarraitu bearrez.

Txiroak jantzi, alkatu ta postu ori bai; ja nolako egintz ederra! Bafia gure Ama Aberria ere bear-izan izugarria degu-ta, onezaz ezin aitzu. Ezin oi la-gun egitea, augatik jarrai ta jarrai egi-teari alde bat utzi. Lan eta lan egin bear.

Urte berri, asmo berri. Asmoak artu ta asmo egifien biurtu auxe urte ontan egin bear deguna.

“Zuk ez ba nik ere ez”. Au jaurti, irizti au jaurti ta “zuk ez, nik bai” esan bear degu aberri aldiz danean.

Besteak zer egiten duten begitu ta abek egiten ba-dute guk egin? Au ez da bear dana. Guk egin; egiteari utzi gabe, ta egiten ez duana egiten ipifil. Au da bear deguna. JZertako? Gerora-ko irabazkifiaz pillatzeko. Zer dira ba, gerorako irabazkifiaz ezta, guk Jaungo-iko ta Aberri aldez egiten ditugun lan guziak?

**Tene**

**Batzordeko**



Emakumeok, AITA SANTUAK DEI ZAITUE

Tamalafia ta negargafia zaigu lan ontan ainbat eta ainbatek ekin afen, zaien belafi gortu oietan, zuen biotz agortu oietan, gure itzaren oitak, guro ekifaren indarrik ez oartzeta. Gudara goaz eta gudan gabiltz, bafio, jau tamalgafia! egin bafio len garituak gerala ta izango gerala bai dakigu. Gudan irabazi nai, bafia jalperik ez gera izan-go gara! Ta ez garaitzea, gaitzea zaigu. Oyu egingo degu; etofiko zaizkigu... itz egingo diegu... luze... zabal, argi ta garbi; afezaz entzungo digute.

Zer eta nola jantzi, zer eta nola jantzen diran, zein pafegafi, lizunki, trakets ifiuzu, Izlariak edonun eta edonoiz, txafean eta onean, emeki ta gogor, itz ifi-asuz, irudi argiz, ateraldi zofotzaz, iz-kiroz eta kupiriz mintzatu dira; orok afezaz entzun diete; baita, bear bacia, izlariaren alde dira; bafia... damurik?... asmo befirik?...

**JANTZI**

¡¡¡Jantzi!!! Zer da itz au, emaku-meok? Jantzi ote da erantzi? Ondo jant-zi ote da gutxi jantzi? Apain jantzi. itxuski jantzi? Emakumeak gauz onik badituzte, ez dizuegu ukatzen; bafia gai ontan batzu-batzuek ezik, asko ta asko, gelenak, kristau izanafen, oso oker eta gaizki jardun oi dezute ta beragaitik, akar gogor baten lain zerate. Mintzatu dira izlari jakintsuak, idazlari trebeak idazletan, batzafetan, aldi guztietan. Apaitzak, jauna, ukatu, eleizan sartzea galerazi, eleiz atietan oafak ipifil, t. a. egin dizkituzte. Gortzi askok emaku-mien janzkeraz, gortzi aundiko arazoa danez, bide zofotzak aukeratu ditue.

Bafia berexiki, emakumiak, Aita San-tua deika daukate. Zuek esagifiaz eta apalak izan bazifiazten, laburki arazo au bukatuko zan, bafian zuen okerkeria da-la bide, Doipuruak oar asko egin bear izan ditu. Bafia batez ere, 1928'gafenean. Urte Santuan askotan eta era askotan mintzatu zan, berexiki emakume aldeak beragana joaten ziranean. Berafi esan zien, bere biotza zenbateraino naigabetu-rik zeukaten, ainbat eta ainbat gaizki jantzita dabilzen emakume kristauak...

**Gure artu - emanak**

ZARAUZ. — Artu ditugu zuek bi-dalduta Pin-pon jokatzailien izenak, bafia ez dizute esan jokaldietan zeit-zen diran oraindano irabazten daude-nek; auxe da jakin nai deguna. Arrea bidal zaiguzte. Emen jartzeko norik norekin jokatu duan eta nor oraindano txapelidun gelditzen dan.

**ANDOAIN.** — Zuei ere beste orren-beste esaten dizutegu. Jokatzailien izen-ak artu ditugu, bafia irabaztalliena. ez. Bidaldu arren.

**MUTRIKU.** — Berdin zuei ere baita, Nortzuk irabazten igaro diran igan-deetan? Nortzuk jokatu duten eta nor-tzuk irabazi duten gaztigatu zaidazute arren.

**DONOSTIA.** — Ikusten deguez zuek orain zozete txapelketa ontan sartzera. Bai dakizute bafia igande bi igaroko di-rala, ta beste errietakoakin batean juat-eko, egun bi oiena aste bitartean jo-katu bearko dezute, ba gure txapelketa au, ezin diteke luzatu, errietako txapel-idun sarri Aberri egunean Donibane Loitzuna juteko txartela emango de-gunez, ordurako gariaz amaitu ta era-baki bear da.

**DEBA.** — Ederki; orrelaxe izenak bear ditugu. Erri ontan jokatzalle, Aro-tegi'tar Miren, Arriola'tar Luke, Odrio-zola'tar Justife, Imanole ta Joxebentxu Markiegi'tar Garate'tar Miren, Astiga-raga'tar Edorte, Lamariano'tar Eliza bete ta Añeta'tar Eulale dira; oraindano Agirre'tar Eulale dijoa irabazten.

**DOIPURUAREN ITZAK**

Onuragafi zaigu Pio XI'gafenaren itz batzuek irakurtzea:

Biotz Deuneko lekaike edo monjaren ikasleei onela zien: naigabetuko nitzake zuek emen egonik aitortuko ez banu, nere biotz aitari onek daukan ofize mingotza... Aundia izan zan gure na-gabea alaba batzuei beren aitaren ete-ko atia itxi genienian, onak eta maita-tuak izanafen, kristau emakumiei da-gozkien eratasun eta lotsaz jantzirik ez zetozetelako... Gure eginbear auek bete-zea askok gogofeja zerizaten, beste askok ordea, katolikoak ez-ezik, zifaus-leak ere, txalotu gifuzten eskerak egif-iaz... Zuei bada, alaba maitel, dei daga-izuet emakumien janzkerari dagozian eratasunaren alde lan egiten lagundu nazazuten. Biotz Deuneko ikasle diran-ak eta izan diranak, eginkizun onerik elkin bezalate; ondorengo onik bilduko ditugu. Eginkizun au, zuen azkera ta zuek azen zaituen lekaimen duin da.

Andere katolikoan bazkuel zezaen beste batian: Bai gure arazorik nagu-sientetakoan gurekin batzen zerate, emakumien janzkera lizunaren eta ofituraren aurka egifiaz; guztiz lotsagafia bai da, emakumien eta gaztien artean gerta-zen dana: kristauak dirala esan bai, ta kristauaren izena laldoz zikindu.

“Karidadeko Karmelita”koel esan zien: Begira; agindu auxe eman bear dizuet: zuen ikastetxetan gaizki jantzen dan ema kumerik ez artu ikasletzat, ez ta era be-reen jantzirik datofen emakumeen ikus-taldetik. Ikasle batzuek alde egiten ba-dute, ez ajolarik; bestiak etofiko dira—Orixe gertatu zaigu, orsan zion lekaike edo monja batek. Orduan Doipuruak esan: Ez ajolarik; bestiak etofiko dira. Begira, Batikano guzian etxea da, ta

**KURSAAL DIA 10 GRAN ESTRENO**

**EL LOBO HUMANO**

**VIAJANTE**

Se necesita, con gastos de viaje pagados y a sueldo y comisión. Indispensable haber vasconce y haya viajado anteriormente artículos alimentación. Referencias y condiciones por escrito a P. 59, PUBLICI-TAS, GARIBAY, 20.

**Café del Rhin**

Por disolución de la Sociedad “Florentino Rojo y Compañía”, que ha venido explotando el Café del Rhin, se ponen a la venta durante la presente semana el mobiliario y enseres de dicho establecimiento.

**ANUNCIE VD. EN “EL DIA”**

## JAZKERA

alaz ere, bere jantzietan eratsu etziran emakumiei saferarik ez diet utzi; ta beragatik, zifausleak, bai zifausleak ere, goretzi naute.

Eta Efoma'ko izlariel garizuman go-gorki esan zien: “Jazkerian lasakeria”. Ta ontan eru aundia gizonak daukate, berekolkeri ta oitura loitsuz, lotsik ga-beko era olek aizkizaten dituelako, Jaz-kerian, oi dan lasakeria, lotsa bafio ez da gizadi guztietantzat; eta alaz ere kristauaren zinismenarekin batu nai du-ten emakumeak badira. Ona emen nar-dakeriaren nardaz, zion Paulo Deunak, kristauaren gorputzak, emalizin gorpu-tzan biurtuak. Gaitz au guztiz zabaldur-rik dago ta oyu ta oyu badagizute ere, ez da aski”.

**OBENA**

Oben edo pekatu ote da ofela jantzi ta ibiltzea? Ara ba, jakintsu guztiak, Ligorio'tar Alfonso Mariaren batean da-satena:

1) Kolko-zabala gelegizkoa bada, oben edo pekatutik ezin zetsisko zailo: kolko-zabalegiak, aragikeria ifrikatzen dualako.

2) Kolko-zabala gelegizkoa ez bada, oitura ez dan tokian sartzea, oben larria litzake.

3) Kolko-zabala gelegizkoa ez bada ta bizi dan tokian emakumeak eraman oi badute, ez litzake oben larria; bafia ofelako oitura ufutiratu bear litzake.

**KALTEAK**

Jazkera olek kalte aundiak dakazte, agiri-agirian dago, Ofela jantzen danak, berak oben egif-erazten die. ¡¡Jantzi nardagarri olek zenbat oben egif-erazi ote dute! Ofela jantzen dan emakumea, laister da dantza lotu loitzuetan, bere ibileraz, iaeraz, izetan, algaran, zaberi-keria ta zantarkeria besterik ez dala, ta ofelako tokitan mutil gazteak zer egin-go dute...

Edonun eta edonoiz gaurko mutil gazteak pekatu asko egif oi ditue, bafia kalte oen egileak, ondamen oien zergatia, gogo edo anima alek erailzen dituen espatak emakumeak zerate. Zuek etxian, kalean, dantza, zifiletan, bille-raz, janzkeraz, abestiaz t. a. ta abar eraz, mutillik amaika oi dituzte. Mutillak gaitzoko dira bafia zuek'ez gutxi-go. Jakin ba, gizonak oso aragikolak eta erorkorrak dirala. Zuen gorputzak irrikalzen dituela, aizkatu, berotu, irakin-du, aldu, ondatu.

Izkutatu ba arren, zuen gorputzak; bao arren izkutatu. Ta ez badezute nai, ez dizuet esango, zuan anal eta semien eta semarren eta gazien gorroto-odola-zuegan ixuri dedilla, bafio alaxe egin-go da. Emakumerik ez degu izango, bafia ez dezute zuek ere, gizonik izango. Ustelkeria eta ustel mordo bafio ez da mundu au izango.

Ufün ba jazkera olek.

Gaztelu, I. S. I. (Jesusen' en Biotzaren Deya'tik.)

**EN EL ATENEO GUIPUZCOANO**

**La escritora María Zambrano disertará el viernes en el Ateneo Guipuzcoano**

El próximo viernes, día 10, a la hora de costumbre, subirá al estrado del Ateneo Guipuzcoano la notable escritora señorita María Zambrano, profesora de Lógica en el Instituto Cervantes y en la Residencia de Señoritas.

La señorita Zambrano, intelectual cien por cien, hablará sobre el tema, “Un tipo español el hidalgo”.

**Teatros y Cines**

**REMITIDOS**

ANTE EL ESTRENO DE MAÑANA EN EL PRINCIPE “AMOR EN MANIOBRAS”

Un nuevo astro español de la pantalla. Ahora en la pantalla española también podemos hablar de nuevos descubrimientos para nuestro arte floreciente. El de hoy es Roberto Font, consumado artista que en su primera presentación ante la cámara, tiene importantísimo papel en la producción española “Amor en maniobras”, cinta que mañana se estrenará en el Teatro del Príncipe y en la que también toma parte Charito Leónis. Font aún siendo esta la primera vez que trabaja en el cine, sorprenderá a todos los que presenciaron la impresión de la cinta, por su naturalidad y gracia para llevar todas las escenas difíciles del film. El director de “Amor en maniobras”, Mariano Lapeyra, le dejó libremente actuar al ver su desenvolvimiento puesto que en cada detalle, cada gesto del muchacho suponían una carcajada y un éxito para el film.

Podemos asegurar que Roberto Font es hoy una de las figuras de nuestra pantalla más estimable por su talento artístico que demuestra plenamente en “Amor en maniobras” la película que mañana se estrenará en el Teatro del Príncipe. No deje de verla.

**Delage 6 cilindros**

Conducción interior, estado perfecto, se vende. Precio muy interesante. GARA JE ARCOS, PRIM, 59.

M' ta T